

Urriaren 10ean abiatuko da Aiko taldeak eskaintzen duen 'Dantzaldi ibiltaria' ikastaroa, Viktoria Eugenia antzokian. Aurten, Euskal Herriko txoko gehiagotara hedatuta, indartu egin dute musika eta dantza tradizionala berreskuratzeko apustua.

Folklorearen berpizteko dantza pausoak

Nekane Zinkunegi Barandiaran

Dantzarekiko atsegina eta dantzatzeko musika sortu eta jotzearen gozamenaren da; jotzea eta dantza egitea, partekatu eta irakasteaz gain», hala definitu du Aiko taldeak *Dantzaldi ibiltaria* egitasmoa. Urritik ekainera bitartean, Donostiako Viktoria Eugenia antzokian eskainiko duten dantza ikastaroaren bidez, euskal folklorea biziberritu nahi dute, eta «herriko ospakizunetan zuen protagonismoa» itzuli nahi diote dantzari.

Dantza eta musika esparruetako irakasle osatuta dago Aiko taldea, eta irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da. Bertako kide dira, besteak beste, Aitor Furundarena soinu-jolea, Sabin Bikandi txistularia, Ainara Artetxe biolinista eta Jon Maia eta Larraitz Artetxe dantzari eta dantza irakasleak. Erromeria tradizionalak «ohiko izaera sozializatzaile» hartzea dute helburu. Horretarako, metodologia propioa baliatzen dute eskoletan, ikasketa prozesua musika eta dantzarekiko gozamen bihurtzen ahaleginduz. Horren bidez, «dantza era natural eta errazean» ikusarazi nahi dute, «konplexutasunik gabe», eta «mundu guztiak praktikan jar dezakeen jardura» dela diote.

Ikastaro egonkorrak tailer, mintegi eta erromeriekin uzartzen dituzte. Hala, «mailari edo trebetasunari erreparatu gabe», beste zaleekin elkartzeko topaguneak eskaintzen dizkiete dantzazaleei. 2009an dinamika martxan jarri zutenetik, 2.000 lagunetik gora trebatu dituzte metodologia horren bidez. Aurten ere, dinamika berari jarraiki, soka-dantza, jota, porru-salda, balts, pasodoble eta halako dantzatan trebatuko dira izena ematen duten ikasleak.

Aurten, urriaren 10etik aurrera, ostegunero batuko dira aurtengo ikastaroan parte hartu nahi dutenak Viktoria Eugenia antzokian. Horrez gain, 2009tik Aikoren ikastaro eta mintegietan parte hartu duten guztiak omen-du nahi izan dituzte, Iñaki Andres argazkilaria *Dantzazaleak* erakusketaren bidez. 130 argazkik baino gehiagok osatzen dute bilduma, eta izenburuak «dantzaren mesedetan berreskuratu den publiko berriari» egiten dio erreferentzia. Datorren astelehenera arte ikusgai egongo da Donostiako Udal Liburutegian, eta ondoren ikastaroa eskainiko duten beste herri batzuetara eramango dute.



Bakoitzak duen mailaren arabera eskoletan eman dezake izena Aiko taldearen ikastaroetan. AIKO TALDEA

Dantza eta musika tradizionalerako hurbilpena egin nahi dutenek euren mailaren arabera eskoletan izena emateko aukera

2009tik hona 2.000 lagunetik gora trebatu dira Aiko taldearen ikastaroan

Partaide guztiak omentzeko, argazki erakusketa osatu du Iñaki Andresek

«Gorputzak ahal duen arteko» dantza maratonia antolatu dute ekainaren 21erako

izango dute. Aurten, gainera, berrikuntza batekin datoz ikastaroak. Izan ere, ikastaroko «dinamika jostagarria» gertutik ezagutu

nahi dutenei doan bertaratzeko aukera emango diete urrian. «Gero, inolako konpromisorik gabe, ikastaroan matrikulatu ala ez erabaki ahal izango dute».

Ekintza osagarriak

Gune zehatzetan eskainiko dituzten ikastaro egonkorrez gain, bestelako ekintzak txertatu dituzte egitasmoan. Horien artean Aikok «dibertsio trinkoko» izendatu dituen hiru hilabetez behingo *Dantza asteburuak* daude. Larunbat arratsalde eta igande goizez tailerrek eta mintegiak eskainiko dituzte asteburu horietan. Lehena Zarautzen egingo dute, azaroaren 9an eta 10ean. Aikok ostatu hartzeko aukera jartzen die bertartu nahi dutenei, 80 euroren trukean. Tailerretara eta mintegietara soilik doazenez, berriz, 50 euro ordaindu behar dituzte.

Ikasteko aukeraz gain, ikasitako praktikan jartzeko aukera

ere ematen du Aiko taldeak. Izan ere, ikasturteari ekitearekin batera, *Hileko erromeriak* antolatzen hasiko dira. Horiek Durangoko Plateruena kafe antzokian egingo dituzte, eta jende guztiarentzat irekita daude. «Dantzaldi herrikoiak jai giroa berreskuratzea» da Aikoren asmoa; askotan, gainera, «herri bazkariekin eta bestelako ospakizunekin batera» antolatuta ohi dituzte.

Edonola ere, aurtengo berrikuntza garrantzitsua ekainaren 21ean egingo duten *Dantza maratonia* izango da. Ikasturtearen amaiera ospatzeko antolatuko dute, eta, Aiko taldekoen arabera, «hitzek hitz, gorputzak ahal duen bitartean iraungo du festak».

Apustua indartuta

Donostian ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere eskainiko dute aurten ikastaroa. Zehazki, Azkainen, Bilbon,

Durangon, Galdakaon, Gernikan, Iruñean, Markinan eta Sopelara eta Sopelara ere eramango dute. Herri horietara guztietara hedatuta, Aikoko kideek indartu egin dute musika eta dantza tradizionalerako gozamen berreskuratzeko apustua. «Folklore baserriar eta landatarraren ideia hedatuaren gaineratik, dantza tradizionalaren berezko ingurunea hiritarra izan da», Aiko taldekoen arabera, eta horixe aldarrikatu nahi dute.

Lehen saioa ezarrita dago. Urriaren 10ean, Viktoria Eugenia antzokian batuko dira ikastaroko lehen saiorako. 18:30ean, oinarrizko dantza ikastaroa eskainiko dute lehen aldiz doazenez. Jadanik *Dantzaldi ibiltari*ko partaide direnen eskola, berriz, 20:00etan hasiko da.



Gipuzkoako Foru Aldundia

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística